



## JARDUERA ABIAN JARTZEAREN ERANTZUKIZUNeko AITORPENA. JARRAIBIDEAK.

### **KASU GUZTIETARAKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:**

- "JARDUERA ABIAN JARTZEAREN ERANTZUKIZUNeko AITORPENA"ren eredia behar bezala beteta eta sinatuta.
- Nortasunari dagokion dokumentazioa: NANaren fotokopia eta/edo ordezkari-tza frogatzen duena.
- Jardueraren behin betiko planoak, barne dituela banaketa, azalerak, instalazioak, eta jarduera eta lokala deskribatzeko beharrezkoak diren alderdi guztiak.
- Tributuen autolikidazioa, eredu normalizatuaren arabera, ordaindu izanaren frogagiria dakarrena.
- Lokalaren, barnealdearen eta fatxadaren argazkiak.
- Nafarroako Gobernuaren Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan justifikatzea instalazioak (elektrizitatea, igogailuak...), kasua bada.
- Osasun zentroaren funtzionamendurako baimena, kasua bada.
- Egintza, lan edo jarduerak behar dituen baimenak, kasu bakoitzean aplikatzeko den araudiak eskatzen dituenak.

### **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA, JARDUERA SAILKATUA BADA:**

- Ziurtagiria, teknikari eskudun batek sinatua eta haren elkargo ofizialak ikus-onetsia, Udalak normalizatutako "PM-AACC ziurtagiriaren" arabera, frogatzeko jarduera dagoela ordenantza honen aplikazio eremuaren barnean, eta betetzen dituela hirigintzako araudia eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.
- Zaratzen neurketaren ziurtagiria, teknikari tituludun eskudunak sinatua eta ikus-onetsia, frogatzen duena lokalak araudiaren arabera isolamendu akustikoa daukala.
- Lokalaren fitxa, baldin jarduera sartuta badago Ikuskizun Publiko eta Josteta Jardueren Katalogoan.
- Hondakin arriskugarriak kudeatzeko baimenaren agiria, beharrezkoa bada.
- Garajea bada: titulartasunaren aldaketaren aurretiazko komunikazioa aurkezteko berariazko konpromisoa, behin jabeen elkarteak elkarturik dagoenean eta beste titular bat dagoenean, bere gain hartuko duena erantzukizuneko aitortpenaren adierazitakoa beteko dela.

### **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA, JARDUERA SAILKATU GABEA BADA:**

#### **1. Aurrez obrarik egin ez bada:**

- Ziurtagiria, teknikari eskudun batek sinatua eta haren elkargo ofizialak ikus-onetsia, Udalak normalizatutako "PM-INOC.1 ziurtagiriaren" arabera, frogatzeko jarduera dagoela ordenantza honen aplikazio eremuaren barnean, eta betetzen dituela hirigintzako araudia eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.
- Beharrezkoa bada, egin beharreko jardueraren arabera: zaratzen neurketaren ziurtagiria, teknikari tituludun eskudunak sinatua eta ikus-onetsia, frogatzen duena lokalak araudiaren arabera isolamendu akustikoa daukala.

#### **1. Aurrez obrarik egin bada:**

- Ziurtagiria, teknikari eskudun batek sinatua eta haren elkargo ofizialak ikus-onetsia, Udalak normalizatutako "PM-INOC.2 ziurtagiriaren" arabera, frogatzeko jarduera dagoela ordenantza honen aplikazio eremuaren barnean, eta betetzen dituela hirigintzako araudia eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.
- Beharrezkoa bada, egin beharreko jardueraren arabera: zaratzen neurketaren ziurtagiria, teknikari tituludun eskudunak sinatua eta ikus-onetsia, frogatzen duena lokalak araudiaren arabera isolamendu akustikoa daukala.

Gutxienez ere aipaturiko dokumentazio hori aurkeztu beharko da. Burlatako Udalak dokumentazio gehigarria eskatzen ahalko du, beharrezkoa dena aitorturiko jardueraren definizio zuzen eta osorako.